

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 2/2020 Foru Dekretua, urtarrilaren 21ekoa. Onestea alda dadila Kontseiluaren urriaren 24ko 104/2000 Foru Dekretua, zeinak Euskararen Batzordea sortu baitzuen, Kultura Sailaren aholkularitza eta kontsulta organoa izan zedin, eta zeinak, halaber, haren egitura, osaera eta egitekoak ezarri baitzituen**

Diputatuen Kontseiluaren urriaren 24ko 104/2000 Foru Dekretuaren bidez, Euskararen Batzordea sortu zen, Kultura Sailaren aholkularitza eta kontsulta organo gisa, eta haren egitura, osaera eta egitekoak ezarri ziren.

Bat etorri Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 9ko 8/2016 Foru Dekretuak 3. artikuluan xedatutakoarekin, Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 2ko 37/2019 Foru Dekretuak eman-dako idazkeraren arabera, Euskararen Batzordea Diputatu Nagusiaren Sailari atxikita geratu da, Euskararen eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritzaren bidez.

Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 11ko 717/2018 Erabakiaren bidez, Araban Euskara Sustatzeko Plan Estrategikoa (2019-2022) onetsi zen. Plan estrategiko berriak dakartzen aldaketan ondorioz, alde batetik, Euskararen Batzordeak aholkularitza eta kultura organo gisa duen zer-gina berrestea proposatzen da, eta, bestetik, herritarrek parte hartzeko organo gisa indartzea.

Egin nahi den aldaketaren bidez, ordezkariak izendatzeko modua arautu nahi da; bai batzordeburuarena, batzordeburuordearena eta idazkariarena, bai batzordekideena. Horrez gain, batzordeburuaren ekimenez edo Batzordearen gehiengoak eskatuta, berariazko gai edo azterlanetarako lantaldeak osatzeko aukera ere sartu nahi da. Lantalde horiek Batzordea bera osatzen duten pertsonak eta/edo haiak proposatuta azterlanaren xede diren gaitan aditu gisa parte hartuko duten pertsonak osatuko dituzte. Era berean, Batzordean parte hartzera gonbida daitezke adituak edo erakunde espezializatuak, hala eskatzen badute edo aztertu beharreko gaiak direla eta komenigarritzat jotzen bada.

Dekretu hau izapidetzeko, maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskinaren 3. artikuluan jasotako araupetze onaren printzipioak bete dira. Foru dekretu horrek hauek onesten ditu: izaera orokorreko xedapenak egiteko prozedura, araupetze eta genero inpaktuaren txostenak egiteko gidak eta araugintza teknikorako jarraibideak. Horiek horrela, azaldutako aurrekarietan behar bezala justifikatu da arautzeko beharra, eta, gainera, araugintza jardun proportzionatua da, lortu nahi den helburua lortzeko ezinbesteko gutxienekora mugatzen baita; hau da, Euskararen Batzordearen osaera eta eginkizunak egokitzea Arabako Lurralde Historikoan euskara sustatzeko foru politiken plangintzan, diseinuan, gauzatzean eta ebaluazioan parte hartzeko organo bihurtzeko helburura.

Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, nahikoa justifikatuta gelditzen delako ordenamendu juridikoan sartzan dela eta hura ematen duen organoa gaituta dagoela.

Gardentasun printzipioari dagokionez, ez da urratu; izan ere, posible da jendurrean jartzeko izapidea ez gauzatzea. Edonola ere, onetsi bezain laster ALHAOn argitaratzeko aginduko da.

Efizientzia printzipioari dagokionez, proposatutako arautzeak, duen izaera dela-eta, ez dakar-kie herritarrei ez administrazio karga osagarririk, ez premiazkoa ez denik.

Horregatik, nahitaezko txostenak ikusi ondoren, Arabako diputatu nagusiaren proposamenez eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- 2. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

**"2. artikulua.** Arabako Lurralde Historikoan euskararen sustapenaren arloko eginkizunak esleituta dituen Arabako Foru Aldundiko sailari atxikita egongo da Euskararen Batzordea."

Bigarrena.- 3. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

**"3. artikulua.** Hauek dira Euskararen Batzordea osatuko dutenak:

1. Batzordeburuaren, batzordeburuordearen eta idazkariaren izendapena artikuluhonetako 2. apartatuan adierazten den moduan egingo da, eta izendatutako pertsonak Euskararen Batzordeko kide izango dira karguan dauden bitartean.

2. Hauek izango dira Euskararen Batzordeko kideak, zeinek hitza eta botoa izango baitituzte:

a) Batzordeburua: Euskararen Foru Zerbitzua bere gain duen foru diputatua, edo hark eskuordetzen duen pertsona.

Batzordeburuordea: Euskararen Foru Zerbitzua bere gain duen zuzendaria, edo hark eskuordetzen duen pertsona.

Idazkaria: Euskararen Foru Zerbitzuaren burua, edo hark eskuordetzen duen pertsona.

b) Kide hauek, Arabako Foru Aldundiko beste zerbitzu batzuen ordezkaritzan:

Euskara Zerbitzuaren ordezkari bat.

Kirol Zerbitzuaren ordezkari bat.

Berdintasun Zerbitzuaren ordezkari bat.

c) Araban hizpide dugun gaiarekin zerikusia duten erakunde edo organoak ordezkatzeko dituzten kideak.

Ordezkaritza izango dute euskara sustatzeko planean jasota dauden eta Arabako hizkuntza normalizazioaren prozesuan eragina duten esparru sektorialetako erakunde edo pertsonak, eta batzordeburuari dagokion sailaren zuzendaritzara zuzendutako idazki baten bidez izendatu eta kenduko dira, eta titularra eta ordezkaria izendatuko dira.

d) Hainbat sektoretako pertsonak: Euskararen Foru Zerbitzuak proposatutako lau pertsona.

3. Arabako Lurralde Historikoan euskara sustatzeko eginkizunak dituen saileko titularrak izendatuko ditu b) apartatuan jasotako Batzordeko kideak, bai eta haien ordezkariak eta Euskararen Batzordea osatuko duten erakundeenak ere.

4. Batzordea eratzean, gizonen eta emakumeen arteko parekotasunari eusten saiatuko da, bai eta lurralde ordezkariaren ere.

5. Erakundeetako titularrak absente edo gaixorik badaude, edo, oro har, bidezko arrazoirik bada, ordezkaria jarriko da haien tokian.

Hirugarrena.- 5. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

**"5. artikulua.** Hauek izango dira Batzordearen egitekoak:

a) Aldundiak hala eskatuta, Araban hizkuntza normalizatzearekin lotura duten gorabehera guztiak aztertzea.

b) Aldundiari eta dagozkien erakundeei neurri egokiak har ditzaten proposatzea euskararen erabilerari buruzko xedapenak hobeto ezarri ahal izateko.

c) Hizkuntzaren alorrean eskumena duten aginte publiko guztiek koordinatuta jardun dezaten bermatzeko neurriak proposatzea.

d) Araban euskararen erabilera sustatzeko egoki irizitako neurriak har daitezten proposatzea.

e) Arabako euskararen erabilera sozialari buruzko partaidetza eta komunikaziorako plata-forma izatea.”

Laugarrena.- 7. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

“**7. artikulua.** Batzordeburuak deitzen duen guztietan bilduko da Batzordea. Betiere, Batzordea gutxienez urtean birritan bildu beharko da.

Euskararen Batzordeak hainbat egiteko eta arlo hartzen dituenek, eta operatibitate handiagoa lortze aldera, lantaldeak eratu ahalko dira gai edo azterketa espezifikoetarako, batzordeburuaren ekimenez edo kideen gehiengoak eskatuz gero.

Lantalde horiek batzordekideek eta/edo haiek proposatuta aztergai diren gaietan aditu gisa parte hartuko duten pertsonak osatuko dituzte.

Lantaldeen bilkuren erregimena malgua izango da, gaiaren premiaren arabera. Lantaldeetarako deialdia egitea eta taldeak koordinatzea batzordeburuari dagokio; hala ere, egoki irizten badiu, idazkariaren gain utzi ahal izango du zeregin hori.”

Bosgarrena. Kendu egiten da 8. artikulua.

Seigarrena. 10. artikulua sortu da eta honela geratu da:

“**10. artikulua.** Herritarren parte hartzea. Batzordeak herritar guztiei emango die bere kudeaketaren eta bere jardun esparruari lotutako gaien berri, bere eskura dituen eta egoki deritzen bide eta ekintza informatiboen bidez. Halaber, haien iritzia jaso ahalko du eztabaida, bilera, kontsulta, inkesta edo egoki deritzon beste edozein bideren bitartez.”

Azken xedapena. ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Vitoria–Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 21a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Euskararen eta Gobernu Irekiaren zuzendaria*

**LEXURI UGARTE ARETXAGA**